

140/16 PRENTSA OHARRA

IBILBIDEEN ETA GELTOKIEN ALDAKETAK AZAROAREN 13AN, IGANDEA, BEHOBIA-DONOSTIA DELA ETA

Datorren **igandean, hilak 13**, Behobia-Donostiaren 52. edizioa egingo dela eta, 7:00etatik 17:00etara ibilbideetan eta geltokietan honako aldaketa hauek egingo dira:

➤ **5-B.BERRI, 16-IGELDO, 18-SEMINARIOA, 19-AIETE-BERA BERA ETA 25-B.BERRI-AÑORGA**

- 7:00etatik 09:45era eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, **Boulevard eta Gipuzkoa plazako geltokiak Okendo kalera** eramango dira.

- 09:45etik 15:00etara gutxi gorabehera, amaierako geltokia **Zubieta kalean, Londres hotolean edo Urbieta 6an** egongo da. **Boulevard, Okendo kale eta Gipuzkoa plazako** geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira.

➤ **21-MUTUALITATEAK-ANOETA, 26-AMARA-MARTUTENE ETA 28-AMARA-OSPITALEAK**

- 7:00etatik 09:45era eta 15:00etatik 17:00etara gutxi gorabehera, amaierako geldialdia **Okendo kalean** egingo da. **Boulevardeko** geldialdiak **Okendo kalean** egingo dira.

- 09:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Urbieta** kalean egingo da. **Boulevard eta Okendo kaleko** geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira.

➤ **8-GROS-INTXAURRONDO, 9-EGIA-INTXAURRONDO, 29-INTXAURRONDO HEGOA eta 42-ALDAPA-EGIA**

- 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **amaierako geldialdia Etxaide kalean** egingo da. Kursaaalen ez da geldialdirik egingo eta **Boulevard eta Askatasunaren hiribideko** geldialdiak **Etxaide kalean** egingo dira.

- 15:00etatik 17:00etara, **Boulevard eta Askatasunaren hiribideko** geldialdiak **Legazpi kalean** egingo dira.

➤ **13-ALTZA**

- Erdialderantz:

-7:00etatik 9:30era Nafarroa hiribideko eta Kursaaaleko geldialdiak kenduko dira eta Galtzada Nagusira eta Kolon pasealekuko 27ra eramango dira.

- 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Casares Pasealekuko, Buenavista, Escalerillas, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz Gaineko, Ulia, Toki Eder eta Groseko geldialdi guztiak **Ategorrieta 31n, Galtzada Nagusian eta Kolon pasealekuan** egingo dira. Linea horien erabiltzaileek zerbitzua Herrera pasealekuan har dezakete, edo 8, 29 eta 31 lineak erabili alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Altzarantz: 7:00etatik 15:00etara gutxi gorabehera, **Boulevardeko geldialdia Askatasunaren hiribideko 3an** egingo da.

➤ **14-BIDEBIETA**

- Erdialderantz: Zerbitzuaren hasieratik 14:30era inguruan, Elosegi 283, Miracruz Gaina, Ulia, Elosegi 43 eta Ategorrieta 65eko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Linea horien 8, 29 eta 31 lineak erabili ditzakete alternatiba gisa, Zubiaurre pasealekuan, Erdialderantz.

- Bidebietarantz: Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren hiribideko 7a **Askatasunaren hiribideko 3ra** pasatuko dira. Fernando Sasiain kaletik, Ategorrietako Erlojua, Elosegi 22, Intxaurrondo Zaharra, Mirakruz Gaina eta Elosegi 102ko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Autobusa desbideratuko da Ategorrietatik Garberaino eta handik Bariantetik Pasai San Pedrorantz Bidebietan sartzeko.

➤ **24-ALTZA-GROS-ANTIGUA**

- Erdialderantz, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Herrera, Gaiztarro, Mirakruz gain, Toki Eder eta Nafarroa Hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira, eta **Galtzada Nagusiko 27an geldituko dira**.

➤ **31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

-Erdialderantz doazenean, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Zubiaurre zubiaren biribilgunean jiratu eta **8. eta 29. lineek Zubiaurren egiten dituzten ibilbide eta geldialdi berak** egingo dituzte. Mirakruz Gaina, Ulia, Toki Eder eta Nafarroa hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta **Ategorrieta 31ra aldatuko** dira. **Kursaaleko geldialdia Kolon pasealekuko 21era** aldatuko da eta **Boulevard 13koa Askatasunaren hiribideko 18an** egingo da.

➤ **33-LARRATXO-INTX.-ANTIGUO-BERIO**

- Beriorantz, 9.30etik 14:30era, Ategorrieta 65eko eta Ategorrieta 41eko geldialdiak **Ategorrieta 31ra aldatuko dira**.

➤ **37-RODIL-ZORROAGA**

-Rodilerantz, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Pinares eta Euskal Herria, Jai Alai, Fernando Sasiain eta Rodilgo geltoki guztiak bertan behera geratuko dira. **Geldialdiak Iparragirre kalean, Zurriolan eta Groseko Anbulatorioan** egingo ditu.

-Zorroagarantz, 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, Mariaren Bihotza, Zurriola-Kursaal, Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren hiribidean ez da geldialdirik egingo, eta Nafarroa hiribidera, Jai-Alaira, Galtzara Nagusira (L14 geldialdia) eta Kolon pasealekuko 21era **aldatuko dira**, eta gero Frantzia pasealekutik aurrera hartuko du bere ohiko bidea.

➤ **38-ALTZA-TRINTXERPE-MOLINAO**

9:30etik 14:30era gutxi gorabehera, ezingo da zirkulatu Buenavista, Pasai Antxo eta Molinao inguruan. Geltoki hauek **zerbitzurik gabe** egongo dira: Oleta, Darieta, Buenavista, Eskalantegi 15, Eskalantegi 58, Molinao Gaina, Molinao plaza eta Darieta 141. Herrera inguruan Txingurri, Herrera Euskotren, Gaiztarro eta Elosegi 111ko geltokiak **bertan behera** geratuko dira.

Horretaz aparte, **larunbatean, hilak 12**, gau osoa zehar, **9 eta 25 lineen** eta **B1, B3 eta B8 Gautxori zerbitzuen Boulevardreko geltokiak** Legazpi kalera lekualdatuko dira.

OHARRA:

Igandean, hilak 13, Zurriola eta Ategorrieta hiribidean Ategorrietarako noranzkoan arriskua egonez gero ikusle kopuru handia dela eta, kale hauetatik ibiltzen diren zerbitzuek ondorengo ibilbideak egingo dituzte:

- **8-Gros-Intxaurrondo:** Mirakruz eta Ategorrieta hiribidetik ibiliko da Jai Alaiko tuneleraino 31 linearen geldialdiak eginez. Handik ohiko ibilbidea egingo du.

- **17-Gros-Amara-Miramón eta 37-Rodil Zorroaga:** Mirakruz eta Ategorrieta hiribidetik ibiliko dira Fernando Sasiain-eraino, 33 linearen geldialdiak eginez. Norabidea aldatuko dute Kotxetegietan eta berriro Zubiaurretik Ategorrieta 31-eraino iritsiko dira (8-14-29 lineak). Hemen hasierako geltokia izango dute.

- **41-Gros-Egia-Martutene:** Mirakruz eta Ategorrieta hiribidetik ibiliko da Jai Alairaino 33 linearen geldialdiak eginez. Hasierako geltokia Jai Alain izango du. Handik ohiko ibilbidea egingo du Loiolarantz.

Iparragirre, Zurriola eta Nafarroa hiribideko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira.

Informazio gehiagorako, kontsultatu Dbus-en webgunean (www.dbus.eus) edo jar zaitez gurekin harremanetan 943 000 200 telefono zenbakira deituta.

